

## Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU Munduko hizkuntza leihoak


### HIZKUNTZA: TAMAZIGHTA

Autoglotonimoa: *tamazight* hizkuntzak, lurralde oso zabalean hitz egiten denez, hainbat izen hartzen ditu, hala nola, taznagt, tacelhit, tarifiyt, taqbaiyt, tacawit, tamzabit, tamahaq, tamaceq, tashelhyita, eta abar (ikus Fundación Mediterránea Montgomery Hart de Estudios Amazighs y Magrebíes erakundearen mapa, Martí *et al.* (2005:248).

Erabilitako beste zenbait izen: berberera (gaztelaniaz: bereber). Moreno Cabrerak (2003:394-5) azaltzen duen legez, *berberera* edo *bereber* hitzak *bárbaro* adierazten du jatorrian, eta baztergarria da, sortu zenean asmo peioratiboarekin egin zelako. *Tamazight* hitza ostera, erabilienetakoa ei da eta *amazigh* (gizon askea) hitzetik erakarra da.

### LURRALDEA ETA HIZTUNAK

*Tamazight* hizkuntza Ipar Afrikako antzinako hizkuntza da, Atlas mendi katearen ingurukoa. Gaur egun hiztunik gehienak Marokon eta Aljerian bizi diren arren, badaude hiztunak Tunisian, Libian, Nigerren, Mauritanian, Senegaleko iparraldean eta Egiptoko mendebaleko Siwa inguruan. Ez da ahaztu behar Ceuta eta Melilla (Espainia) ingurua ere *tamazight* hizkuntzaren lurraldea direnik.



Maparen iturria: Martí *et al.*, 2005.

Datu eta errolda fidagarririk ez dagoen arren, 10 milioitik gora hiztun dituela esaten da. Besteak beste, Marokoko biztanlearen %40ak jatorri amazigha duela esaten da, 6 milioi inguruk. Aljerian, iturrien arabera, 3 milioi eta 6 milioi artekoak dira *tamazight* hiztunak. Malin 600.000 inguru daude, Nigerren 700.000tik gora, eta Libian 20.000ren bat. Espainiar Estatuko Melillako *tamazight* hiztun-kopurua ez da ezagutzen.

Bestalde, immigrazioa dela-eta *tamazight* hiztun asko heldu da azken urteetan Frantziara eta Espainiara, baita Euskal Herrira ere.

### HIZKUNTZAREN EGOERA

Aljeriako hizkuntza nazionala eta ofiziala, konstituzioaren arabera, arabiera klasikoa da. Amazighak populazioaren %14 izan arren, euren hizkuntzak ez du maila ofizialik. Alabaina, bada Aljeriako hizkuntza nazionaletako bat. Gainera, badira azkeneko urteetan hainbat ahalegin eta zenbait lorpen *tamazight* hizkuntza hezkuntzan eta

hedabideetan erabiltzeko. Ezagunak dira, besteak beste, Kabiliako amazighen aldarrikapenak euren hizkuntzaren inguruan.

Marokon *tamazightak* ez du ofizialtasunik, eta baztertuta dago guztiz, hainbat eskualdetan etxeko eta kaleko hizkuntza den arren. Gainerako estatuetan ere, *tamazightak* ez du inolako ofizialtasunik estatuaren aldetik.

Wurm-en (2001) liburuan ez da aipatzen *tamazight* hizkuntza arriskuan daudenen artean, hainbatean hiztun-kopuru handiak ematen dion ustezko babesagatik.

Azken aspaldian alfabeto latinoak ari dira erabiltzen *tamazight* idazleak, bereziki Aljerian eta Marokon. Halere, badira arabiar alfabetoa darabiltenak ere. Ez da ahaztu behar antzina *tamazightak* bazuela alfabeto propioa, tfinagh izenekoa, gaur egun tuaregek darabiltena (Moreno Cabrera 2003:397).

### Tifinagh alfabetoa

| Alfabeto Amazigh "TIFINAGH" |   |   |   |   |   |
|-----------------------------|---|---|---|---|---|
| A                           | ⴰ | G | ⴱ | N | ⴣ |
| B                           | ⴡ | H | ⴢ | O | ⴤ |
| C                           | ⴣ | I | ⴥ | P | ⴦ |
| D                           | ⴤ | J | ⴧ | Q | ⴨ |
| Ḍ                           | ⴥ | K | ⴩ | R | ⴫ |
| E                           | ⴦ | L | ⴬ | S | ⴭ |
| F                           | ⴧ | M | ⴮ | T | ⴯ |
| * ⴰ ⴱ ⴣ ⴤ ⴥ ⴦ ⴧ ⴩ ⴫ ⴭ *     |   |   |   |   |   |

Bestalde, aipagarria da *tamazight* hizkuntzari lehenetariko ikerketak gaztelaniaz Sarrionandia izeneko apaiz euskaldunak egin zituela XX. mendearen hasieran (Sarrionandia, 2010). Ikaragarri informazio bikaina eskaintzen du autoreak liburu honetan sakondu nahi duenarentzat *tamazight* hizkuntzaren historiari eta egoerari buruz.

### HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

*Tamazight* hizkuntza afroasiarra da. Hizkuntza afroasiarrak Afrikako iparraldean zehar, erdialdeko ekialdean eta Asiako Arabiar penintsularen inguruan hedatzen dira. Talde honetakoak dira, besteak beste, arabiera edo hebraiera.

Aditu askorentzat hizkuntza multzo baten aurrean gaude (del Moral, 2002), eta ez hizkuntza bakarraren aurrean. Horrela ari direnek hainbat hizkuntza berber bereizten dituzte: Ethnologuek (Lewis, 2009; www.ethnologue.com), esaterako, 25. Horien artean, besteak beste, bereziak izango lirateke tuaregen aldaera (Mali eta Niger) edo Kabiliakoen aldaera (Aljeria). Alabaina, hainbat dira hizkuntza bakarraren aldarrikapena egiten duten amazighen elkarteak.

Antzinako Kanariar Uharteetako bizilagunak, guantxeak hain zuzen, *tamazight* hiztunak ei ziren.

### HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

*Tamazightak* ASO (aditza-subjektua-objektua) hitz hurrenkera du, hizkuntza semitarretan gertatzen den bezala. Beraz, *tamazightez* aditzez hasten dira esaldiak. Horiez gain, preposizioak ditu hizkuntza honek, eta ez, euskarak legez, posposizioak.

Izenetan genero bi ditu: maskulinoa eta femeninoa deitzen direnak, eta gehienetan *ta-* aurrizkia eransten zaie forma femeninoei, hizkuntzaren beraren izenean

ikustenenez: *ta-* + *amazight*. Pluralak egiteko hiru era daude. Ohikoena singularreko formari hasierako bokala aldatzea eta amaieran *-n* eranstea da: *argaz* gizona izanik, *irgazn* gizonak da. Bigarren era zera da, bokal bat aldatzea edo eranstea: *adrar* mendia bada, *idurar* da mendiak, edo. Hirugarren bidea pluralak egiteko aurreko bien batuketa da (bokala aldatzea eta *-n* eranstea): *izi* eulia da *izan* euliak.

Aipagarria da izenek badutela forma ergatiboa, esaldi iragankorren subjektuak izateko (eta beste zenbait zereginetarako ere). Horretarako oinarrizko hitza aldatu egiten da lau era desberdinetan, esaterako, *argaz* hitza (gizona) *urgaz* bihurtzen da, edo, femeninoa izanik, lehenengo bokala galtzen du, *tamghart* hitza (emakumea) *tmghart* bihurtuz.

Ez dago adjektiborik, eta nolakotasunak adierazteko aditzaren aldakiak erabiltzen dira.

## HIZTEGITXOA

Hemen adierazten dena, nonbait, Melillako hiztegia ei da. Jatorria: Ana María Rico Martín eta Celia Rico Martín. Vocabulario básico infantil español-amazige (<http://www.um.es/tonosdigital/znum10/secciones/Amazige.pdf>).

baba, yemma, umma, utchma, jeddi, henna, mmi, yeği, xari  
(nire) aita, (nire) ama, (nire) anaia/neba, (nire) ahizpa/arreba, (nire) aitita, (nire) amama, semea, alaba, osaba

aman, aghrum, azeğit, fus, titt, acwaf  
ura, ogia, burua, eskua, begia, ilea

zero, wahit, tnayn, trata, arb'a, xamsa, setta, seb'a, tmenya, tes'a, 'acra  
0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10

## ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

<http://elguanche.net/tamazgha/cursotamazight.htm>  
<http://www.ikuska.com/Africa/Lenguas/Tamazight>  
<http://melillatamazight.es/>  
<http://usuarios.multimania.es/izuran/tamazight.htm>  
[http://www10.gencat.cat/pres\\_casa\\_llengues](http://www10.gencat.cat/pres_casa_llengues)  
[http://www.attawassul.net/Attawassul\\_julio\\_agosto\\_2007.pdf](http://www.attawassul.net/Attawassul_julio_agosto_2007.pdf)  
<http://www.um.es/tonosdigital/znum10/secciones/Amazige.pdf>

## ERREFERENTZIAK

Del Moral, R. (2002) *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa.  
Lewis, M. Paul (arg) (2009) *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas, Texas: SIL International.  
Martí, F., Ortega, P., Idiazabal, I., Barreña, A., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. eta Amorrortu E. (2005) *Words and worlds*. *World Languages Review*. Multilingual Matters.  
Moreno Cabrera, J.C. (2003) *El universo de las lenguas. Clasificación, denominación, situación, tipología y bibliografía de las lenguas*. Madrid: Castalia.  
Sarrionandia, Joseba (2010) *Moroak gara behelaino artean?* Iruña: Pamiela  
Wurm, S.A. (2001) *Atlas of the World's Languages in Danger of Disappearing*. Paris: UNESCO

<http://www.um.es/tonosdigital/znum10/secciones/Amazige.pdf>.  
[www.ethnologue.com](http://www.ethnologue.com)